



**H**erio gogor ari da aurten euskararen munduan. Hainbat lagun galdu ditu euskal kulturak azaroa baino lehen. Azkenetakoa, urriaren 23an, ohorezko euskaltzaina: **Jose Mari Larrarte** (Bidania, 1926 – Urretxu, 2004). Fraide pasiotarra, Hizkuntza Erromanikoak eta Euskal Filologia ikasketak egin zituen eta Bizkaian, Nafarroan, Gipuzkoan eta Araban euskalduntze eta alfabetatze lanean jardun zuen. Eusko Legebiltzarra eratu zenetik, bertako bat-bateko eta testu idatzien itzultzaile izan zen. Utzi dizkigun argitalpenetan dira, adibidez: *Euskara Bizitik 1, Izen sin-tagma mugagabea Tartas-en 'Ontsa hiltzeko bidea'-n*, eta *Eratopenaz*.

**1**998an sortu zenetik hona bide handia egin du Santurtziko Udal Euskaltegiaren **santurtzius.com** web gunea. Orain, erabat berritu du aipaturiko web gunea: on-line ikastaroak sortzeko eta kudeatzeko Moodle (moodle.org) ingurunea erabiliz, orain arteko zerbitzuak hobetu eta berriak ere eskainiko ditu software librearen gainean lan eginez.



Urrats berri honekin, euskarak Interneten duen presentzia areagotuko da, eta Europako hizkuntzetan garatzen ari diren esperientziak gurera ekarriko ditu Santurtziko Udal Euskaltegiak.



**E**usko Jaurilaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta **Euskaltzaindiak** 2004. urteko protokoloa sinatu zuten azaroaren 16an, Euskaltzaindiaren egoitzan. Euskaltzaindiak aurten egin beharreko lanak zehaztu dituzte protokolo horretan, bai eta lan horiek egiteko akademiak jasoko dituen diru-laguntzen zenbatekoa ere.

Protokoloa, 2002ko azaroaren 19an sinatu zuten hitzarmenaren eranskina da. Hitzarmenean Euskaltzaindiaren eta herri-aginteen arteko harremanak finkatu zituzten lau urterako, eta urtero sinatzen da hitzarmen hori gauzatzeko protokoloa. Orotara Herri Aginteek Euskaltzaindiari egingo dioten diru-ekarpena 2.519.047 eurokoa izango da.



**E**usko Jaurilaritzaren Kultura Sailak, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren (ELSN) barne dauden hainbat udal liburutegirekin lankidetzan, **ELSNko katalogoa on line** jarri du. On line katalogoa etengabe eguneratzen da, eta [www.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.euskadi.net/katalogobateratua) web gunea kontsultatuz gero, bilaketa bakarrean, erabiltzaileak jakin ahalko du interesatzen zaion gaiari buruz zenbat dokumentu dauden eta baita zein liburutegitan eskuratu ahal izango dituen ere. Oraingoaz 300.000

dokumentu baino gehiago daude katalogatuta eta 60 udal liburutegik baino gehiagok parte hartzen dute, besteak beste, Gasteiz, Irun, Eibar, Arrasate, Getxo, Leioa, Eltziego edota Aramaiokoak. Proiektu honetan bi ezaugarri azpimarra daitezke: batetik, liburutegietara sartzeko hemendik aurrera irakurle-txartel bakarra beharko dela; eta, bestetik, katalogoa elebiduna, euskaraz eta gaztelaniaz, dela. Horrela, euskarari dagokionez, erabiltzaile bakoitzak hautatu ahal izango du katalogoa zein hizkuntzatan, euskaraz edota gaztelaniaz, kontsultatu nahi duen. Horretarako, autoritate eta gai-sarreraren katalogo elebiduna gauzatu da, hau da, egilearen sarrerak, erakundearen sarrerak, izenburuen sarrerak, biltzarren sarrerak, gai-sarrerak eta leku-izenen sarreraren erregistroak euskaraz eta gaztelaniaz jasota daude.



**E**usko Ikaskuntzak erabaki berri duenez, euskaltzainburu **Jean Haritschelharrek jasoko du 2004ko Manuel Lekuona saria**, euskal kulturaren alde egin duen lan oparoagatik.

Jean Haritschelhar Baigorri sortu zen 1923an, Parisen ikasi zuen eta Euskara eta Euskal Literatura katedraduna izan zen Bordeleko Unibertsitatean. Hamaikaxo lan ditu argitaraturik eta, denetan, Pierre Topet-Etxahun buruzkoa da gailen. Bestalde, UPV-EHUK "honoris causa" doktore izendatua du.

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria ez da oraingoxea, 1983tik urtero-urtero banatu baita. Betiere, euskal kulturaren alde lan egiten dutenen jardun osoa aitortu izan da. Horregatik, harriztekoa ere ez da besteak beste ondoko izen hauek irakurtzea saridunen zerrendan: Jorge Oteiza, Bernardo Estornes, Karlos Santamaria, Jose Maria Jimeno Jurio, Jesus Atxa, etc.



**G**aztetxulo, Xirika, Gazteberri... gazteen-tzako aldizkariak ditugu, gazteei beren gustuko eta intereseko informazioa ematen dieten agerkariak. Oraindik orain, berriz, beste bat jaio da: **Matraka** du izena eta **Berria** egunkariaren ekimenez sortu da. 16 orrialde ditu, guztiak koloretan, eta 55.000 ale banatuko ditu denera: 25.000 ale, asteazkene-ro, **Berria**-rekin batera; eta beste 30.000, ostegunero, eskura eta doan, unibertsitateetan eta lanbide heziketako hainbat ikastetxetan.

Aberasten ari da, dudarik gabe, gazte aldizkaria esparrua.



**2**0 urte bete ditu, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen (EIZIE) **Senex** aldizkariak. Euskal itzulpengintzari dagozkion gai eta alorrek lantzen dituen aldizkariak 1984an kaleratu zuen lehen alea, Martuteneko Itzultzaile Eskolaren inguruan bildutako itzultzaile taldearen eskutik. Urteurrena ospatzeko, aldizkariaren ohiko alea (27. zenbakia), eta **Senex grafikoa** liburu berezia kaleratu ditu EIZIEk. Liburu honetan, aldizkariak izan dituen azalak eta irudiak bildu dituzte eta, horrekin batera, Berbelitz itzultzailearen gorabeherak irakurri ahal dira, Anjel Lertxundik idatzitako kontakizunean.

**B**erripapera-ren aurreko alean adierazitakoaren arabera, azaroaren 9tik 12ra egin zen Bilbon Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua. Azken egunean ondorioen berri eman zuten antolatzailleek. Batetik, "euskal komunikazio-esparrua euskaraz gauzatzen dena" dela azpimarratu zuten eta, bestetik, "izaera propioaren kontzientzia hartzen" ari dela gaineratu. Esan zuten, euskarazko komunikazioak gero eta zerbitzu osoago eta integralagoa eskaini nahi dio euskal komunitateari.



**P**ertsona asko ari dira gaur egun euskararen aldeko lanean. Ezagunak dira horietarik zenbait, gure artean bizi dira eta ohiturik gaude baita eta bestean ikusten edo iritzi ematen. Badira beste batzuk, ordea, ezezagunago ditugunak: euskararen alde ari dira, baina atzerrian. Euskalari ditugu. Euskaltzaindiak aspaldi du aitortua horien lana, eta ohorezko euskaltzain titulua ere eman die Suzuko Tamura (Japonia), William A. Douglass (AEB), Georges Rebuschi (Frantzia), Jan Braun (Polonia), Yuri Zytsar (Errusia), Vahan Sarkisian (Armenia) eta besteri.



**Euskalariak** ez dira berri gurean, ordea. Luis-Luziano Bonaparte, Gerhard Bähr, Gilen Humboldt eta Wentworth Webster, adibidez, euskararen aldeko lanean nabarmendu ziren, atzerrian jaioak izan arren. Hauen berri gehiago nahi izanez gero, jo **Bidegileak** bildumara ([www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)).



**B**este arlo askotan bezala, pentsamendua-reenan ere lanean ari da aspaldi euskalduna, eta pentsamendua ere euskaraz ari da eztabaidan. Horra, adibidez, **Pentsamenduaren Klasikoak** bilduma handia, **Jakin irakurgaiak** saila, edo EHUk hasi duen **Limes dibulgazio bilduma** berria. Egitasmo honen helburu da literaturaren bidez pentsamendua azaldu duten zenbait autoreen obrak euskaratzea. Hasteko, Ernest Renan-en **Zer da nazioa?** idazlan klasikoak ireki du **Limes** bilduma, unibertsitateko ikasleari laguntzeko, eta zaletuaren gozamenarako.

**G**ure literatura hobeto ezagutu eta ulertzeko material berria argitaratu du Cenlit argitaletxeak. **Hitzen Kutxa** du izena proiektuak, eta hiru liburu dakartza: **Hitzen Kutxa. Euskal Literaturaren aleak** da lehenengoa; **Hitzen Kutxa. Euskal Literaturaren aleak -Iruzkin garatuak-**, bigarre-



na, eta **Manual Literaturazkoa. Edo literatur iruzkinak burutzen ikasteko liburua**, hirugarrena.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle Jon Elordik koordinatu du proiektua eta Batxilergoko ikasle eta irakasleei dago zuzendurik.

## bertso eta olerkien hemeroteka

**B**ertso eta Olerkien Hemeroteka aurkeztu berri dute, Julen Urkizak hasitako lanaren jarraipena. Honek, 1990 bitartean XIX. eta XX. mendeko 450 aldizkari aztertuta eta 46.000 fitxa bibliografiko baino gehiago bildu zituen eta, orain, lekua egin dute sarean, Susa argitaletxearen [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com) helbidean. Ondorioz, XIX. mendetik gaurdainoko egileen, aldizkarien eta bertso eta olerkien fitxak erabiltzailearen esku dira hemeroteka birtual horretan.

**E**statuko hizkuntzen erabilera arautzearen gaineko jardunaldian parte hartu zuen Euskaltzaindiak, urriaren 8an, Bartzelonan. Jardunaldiaren xedea izan zen Espainiako Estatuko hizkuntzetako lege-arautze berria aztertzea, hizkuntza gutzietan koofizialtasun parekatua ziurtatzeko asmotan. Euskaltzaindiaren izenean, Jagon sailburu Andres Urrutiak hitz egin zuen "**Espainiako hizkuntzak eta legea**" gaitzat harturik.

Urrutiaren hitzaldia irakurri nahi izanez gero, jo [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

**E**uskara zerbitzueta-rako aholkularitza integrala eta laguntza tekniko eskaintzen dituen programa abiarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. **Teknikari** du izena eta Gipuzkoako udalen eta Aldundiaren artean hizkuntza normalkuntzarako lan dinamika berria martxan jartzea du helburu.

Besteak beste, honako egitasmo hauek ditu **Teknikari** programak: Kiroletako lan mahaia; Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Gipuzkoako udalaren garatzeko aholkularitza tekniko; Hizkuntza normalkuntzarako esperientzia berrien laboratoriora; Udaletako euskara teknikarientzako prestakuntza saioak, eta abar.




Euskal Autonomia Erkidegoko **hainbat enpresatan martxan dira dagoeneko euskara planak**. Enpresa hauek ez dira denak izaera sozial berdinekoak: batzuk kooperatiba elkarteak dira; beste batzuk, aldiz, enpresa pribatuak, eta badaude elkarte, fundazio edo antzekoak ere tartean.

2002-2004 urteetan, era honetako planak dituzten enpresa gehienak Gipuzkoan daudela argi erakusten digute datuek. Esanguratsua da, gainera, Deba Garaia eskualdean ematen den kooperatiba elkarten pilaketa nabarmena.

Bizkaia aldean, ordea, Bilbo inguruan daude enpresa gehienak eta, Gipuzkoan ez bezala, elkarte, fundazio eta antzekoak dira nagusi.

Arabaren kasuan, euskara plana duten enpresak ez dira asko eta daudenak hiri inguruan pilatzen dira. Gehienak, kasu honetan, enpresa pribatuak dira.

	EKONOMIA SOZIALA 1	ENPRESA PRIBATUAK 2	BESTELAKOAK 3	GUZTIRA
	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua
Arratia-Nerbioi	1	0	0	1
Bilbo Handia	2	8	16	26
Durungaldea	1	2	1	4
Enkartazioak	0	0	0	0
Gernika-Bermeo	1	0	0	1
Markina-Ondarroa	3	0	0	3
Plentzia-Mungia	0	0	0	0
<b>TOTALA</b>	<b>8</b>	<b>10</b>	<b>17</b>	<b>35</b>
Bidasoa Beherea	0	0	0	0
Deba Beherea	2	3	0	5
Deba Garaia	24	10	0	34
Donostialdea	3	12	11	26
Goierri	3	3	0	6
Tolosaldea	1	2	0	3
Urola-Kostaldea	1	0	0	1
<b>TOTALA</b>	<b>34</b>	<b>30</b>	<b>11</b>	<b>75</b>
Arabako Ibarrak	0	0	0	0
Arabako Lautada	0	4	2	6
Arabako Mendialdea	0	0	0	0
Errioxa Arabarra	0	0	0	0
Gorbeia Inguruak	0	0	0	0
Kantauri Arabarra	1	1	0	2
<b>TOTALA</b>	<b>1</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>8</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>43</b>	<b>45</b>	<b>30</b>	<b>118</b>



1.- Kooperatiba elkarteak

2.- S.A., S.L.U., ...

3.- Bestelakoak (elkarteak, fundazioak, ...)

## METAMORPHOSES

A Journal of Literary Translation

Euskal Idazleen Elkarteak euskal literatura atzerriko hizkuntzetara itzultzeko lanean ari da. Lan horren emaitzak jasotzen ere ari da. Oraindik orain, adibidez, zortzi euskal idazleren lana argitaratzea lortu du **Metamorphoses aldizkarian**, hau da, literatur itzulpena sustatzen duen AEBetako agerkarian.

Euskal literatura munduratzeko beste lehi bat, dudarik gabe.

**Euskerea nire bizitzan**, Bilboko gotzain laguntzaile Karmelo Etxenagusien liburua argitaratu du Labayru Ikastegiak. Bertan, egilearen idatzi guztiak bildu ditu Igone Etxebarriak, hiru ataletan banaturik: "Euskerea nire bizitzan" da lehena, elkarrizketa itxurako testua, euskarak egilearen bizitzan egin duen ibilbidea kontatzea helburu duena; bigarrena, "Euskal gaiak", hizkuntza eta literatura-buruzko artikuluen bilduma; hirugarrena, "Eleiz gaiak", elizaren gaineko idatziak biltzen dituena. Euskararen gizarte-historia egiten duen liburua dugu, batetik, eta, hori ez ezik, erlijio gaiak euskaraz lantzeko argia ere eskaintzen duena.



## EuskoSare

Eusko Ikaskuntzak **EuskoSare** ekimena aurkeztu berri du Argentinan. Ekimenaren helburu da munduko euskaldun guztien, euskaldunen lagun guztien eta hauek biltzen dituzten erakunde guztien arteko komunikazioa eta kooperazioa areagotuz, Euskal Komunitate Globalaren hazkundera ahalbidetzea.

Proiektua aurkeztu ez ezik, berari buruzko informazio gunea ere abiatu du sarean Eusko Ikaskuntzak, [www.euskosare.org](http://www.euskosare.org) helbidean.

**Esku-Eskura. Oinarriko komunikazioa euskaraz**

liburuxka eta CD-aren alemanezko bertsioa kaleratu da. Joan den udaberrian argitaratu zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta HABEK *Esku-Eskura*-ren lehenengo bertsioa; hau da, komunikazioan gehien erabiltzen diren euskarazko esaldien eta berorien gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko itzulpenak. Geroago, euskara-katalanari zegokiona kaleratu zen. Alemanezko bertsioaren bidez leiho berri bat du euskarak munduan.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak **Mandrake Linux 10.0** argitaratu berri du. Aurretik egindako Mandrake Linux 8.2 bertsioaren eguneratzea da. CD formatuan eskura daiteke Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuan (3 €) edota [www.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskadi.net/euskara_soft) helbidetik doan deskargatu.

Itzulpen-lana UZEIk eta Elhuyarrek egin dute, HPSK gainbegiratze-lana, Zundan enpresak konpilatze- eta koordinazio-lana, eta EJEK koordinazio orokorra eta testeate-lanak.

**Microsoftek Office 2003aren euskarazko LIPa** (interfaze-paketea) eskuragarri jarri du bere web gunean, <http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=ccf199bc-c987-48f5-9707-dc6c7d0e35d0&displaylang=eu> helbidean. Nahi izanez gero, [www.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskadi.net/euskara_soft) helbidera jo daiteke bertan esteka jarri baita. Paketea gaztelaniazko bertsioaren gainean instalatu behar da, gero sistema berrabiarazi eta, segidan, pantaila guztiak euskaraz agertuko dira. Itzulpen-lanak UZEIk eta Elhuyarrek egin dituzte eta gainbegiratze-lanak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Gogorazi behar da orain hilabete batzuk Microsoftek **Windows XPren LIPa** ere eskuragarri jarri zuela. Deskargatzeko, [www.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskadi.net/euskara_soft) helbidera jo daiteke.

Azpiratu behar da Microsoften ekimena izan dela LIP horiek euskaraz garatzea, hau da, bere kasa egin ditu eta berak finantzatu ditu.

IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO-k) aurrera jarraitzen du Administrazioarentzat eta herritarrentzat **oinarrikoak diren hainbat lege-testu euskaratzeko programarekin**. Horrela, orain urte batzuk itzultako Maastricht-eko eta Nizako Itunez, Administrazio Prozeduraren Legeaz eta Trafikoko Legeaz gain, Toki Arabidearen Lege berria, Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Autonomia Estatutuaren itzulpen eguneratua eta Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoaren proposamena itzuli dira, eta Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, Espainiako Zigor Kodea eta Adingabeen Legea, Kode Zibila eta Nafarroako Foru Zibila eta beste zenbait lege zibil itzuli eta argitaratu dira.



Berrikitan itzuli ere du IZOk Europar Konstituzioa, eta baita EHUKo eta Deustuko Unibertsitateko adituekin adostu ere.

Aurrerantzean, unibertsitateekin hitzarmen bidez edota bere baliabideekin, Estatuko lege organikoak euskaratuko ditu. IVAPen web orrian ([www.ivap.org/izo/legeak/legeria](http://www.ivap.org/izo/legeak/legeria)) jarritzen ditu IZOk testuok itzultzaileen, administrazioari langileen nahiz herritarren esku.

Sendagile, erizain eta osasun arloko langileentzat ikas-material bereziak argitaratu ditu HABEK, Osakidetza eta IVAP-HAEE-ekin elkarlanean, eta UZEIren partaidetzaz. **Osatuz Orokorra** eta **Osatuz Pediatria** langai



didaktikoak sortu dira, bigarren hizkuntza eskakizuna prestatzen ari direnentzat edo antzeko maila dutenentzat. Ikasmateria-lor Osakidetza euskararen erabilera-plana garatzen laguntzeko asmoz sortu dira, medikuek, erizainek eta laguntzaileek gaixoei eta hiritarrek dituzten harremanetan euskara erabil dezaten.



Euskarazko toki-prentsa-eren barruan leku berezia du **Ze Berri?** aldizkariak. Euskarari loturiko Nafarroako gaiak zabaltzen ditu, oso era didaktiko eta atseginean, euskaraz eta gaztelaniaz. Iruñerrian eta Nafarroako iparraldean diren udaletako euskara teknikariak eta Nafarroako Gobernuako Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia dira argitaratzaileak. 70.000 aleko tirada du eta bihilabetekaria da.



49. alea argitaratu zuen joan den irailean eta, beraz, 50.a izango dugu gabonak baino lehen. Sortu berri den web orrian ([www.zeberri.com](http://www.zeberri.com)) ikusgai daude **Ze Berri?** aldizkariaren aleak.

Familiak berebiziko garrantzia du hizkuntzen transmisioan. Horretaz jabeturik, hainbat udal **euskararen belauneko belauneko transmisioa** indartzeko lanean ari dira. Orioko Udala dugu adibide. Orain arte, modu naturalean gertatu da transmisio hori herriko familietan, baina, gaur egun, bikote erdaldun edo misto gehiago dituzten bertan, euskararen transmisioari laguntzeko kanpaina abiarazi dute. Horren arabera, ume jaio berria duten gurasoei zenbait material bidaltzen zaie, motibagarri: Iñigo Manteolaren "Familia" koadroaren erreproduktzioa, haurtxoei erabiltzen diren hitz goxoen zerrenda, Olatz Zugastiren sehaska kanten diskoa, etab. Ekimen hau Euskara Biziberritzeko Planaren barruan txertatu du Orioko Udalak.



*Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz*

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es